

## **Sindikatuaren zeregina: ekonomiaren trantsizio soziala eta ekologikoa**

Klima aldaketa bezalako erronkak globalak dira. Gizadiaren, planetaren eta, beraz, langile klasearen etorkizuna dago jokoan. Erronka horiek presentzia gehiago izan behar dute sistema sozial, ekonomiko eta politikoaren aldaketa erradikala nahi dugun eragile sindikal eta sozialen agendan. Sindikalismoak funtsezko subjektua izan behar du klima aldaketaren aurkako borrokan.

Aldaketa erradikalaz ari garenean eraldaketa sozial, ekologiko, feminista eta demokratikoaz ari gara. Lau alderdiak hartu behar ditugu kontuan gure alternatibak martxan jartzeko orduan.

Sakoneko gatazka bat dago kapitalaren eta bizitzaren artean. Horrek bizitzaren eta planetaren iraunkortasuna erdigunean jarriko duen sindikalismoa eskatzen du. Eta aliantza bat sistemaren eraldaketa erradikalaren ikuspegia partekatzen duten gainerako eragile sozialekin.

Hau esanda, eta eguneroko errealitatera etorrira, pairatzen ari gara krisia globala da eta esparru askotan ematen da: ekologiko, soziala, zaintzarena, politikoa, demokratikoa... Baina guztiak daude lotuta.

Errealitatea hau izanik, eta justizia sozial eta ekologikoa/klimatikoa helburu izanda, ELAn badira urte batzuk ekonomiaren trantsizio ekologiko eta soziala nolakoa izan behar den hausnartzen hasi ginela.

Gaur azalduko dudana, hazkundearen ekonomiatik eta egungo eredu industrialetik irteera ordenatua egiteko daukagun proposamen bat da. Beste ekonomia, beste gizarte baterantz, non lehentasuna iraunkortasuna, kalitatea, elkartasuna eta herritarren parte hartzea izango den.

## **1. Gaur egungo ereduaren argazkia**

Kontsumo gizarte batean bizi gara, baina bilakaera batetik gatoz: beharrianak asetzeko produktotik industriak mantentzeko kontsumora igaro da.

Hazkundearen gizarte honen ezaugarri nagusiak:

- Aberastasunaren adierazle Barne Produktu Gordina eta bere hazkundera dira. Aintzat hartu gabe: planetaren muga fisikoak, produkzioaren esternalitate/eragin ekologikoak eta sozialak, aberastasunaren banaketa edota merkatukoak ez diren lanak.
- Produktibitatea gehitzea aurkezten da garapenaren eta gizarte babesaren oinarri bezala, produktibitate hazkundearen zati handi bat ekologikoki jasanezina bada ere.
- Teknologiari esker gaingaitu ahal izango dira arazo sozial eta ekologikoak.
- Enplegutzat lanaldi osoko lan produktiboa hartzen da. Ez da kontuan hartzen lan erreproduktiboa.
- "Edozein enplegu ona da". Etika, ingurumena, edo ondorengo belaunaldietan edota beste leku batzuetan duen eragina kontuan izan gabe.
- ....

## **2. Bidezko eredu, planetaren mugekin bat datorrena**

- Aberastasuna berdintasunez birbanatuko dituen. Ez da nahikoa, planeta t'erdi bagenu bezala.
- Hazkunderik gabeko ongizatea. Egonkortasuna ez da hazkundearen menpe egongo,

eta BPG ez da aberastasunaren adierazlea izango.

- Kalitate handiagoa duten produktu eta zerbitzuak ekoztuko dira, energia gutxiago kontsumitu eta ingurumenean eragin txikiagoa dutenak. Lan gehiago eta lan hobe izango dugu.
- Bizi-kalitate hobe izango dugu eta modu iraunkorren: oinarrizko beharrak merkatuaren logikatik kanpo asetzea: jatekoa, energia edota etxebizitza.
- Lan produktibo eta erreproduktiboa orekatuko da. Ordaindu eta ez ordaindua, emakume eta gizonen artekoa. Lan erreproduktiboari zor zaion balioa aitortuz.
- Boterea berlokalizatzea. Herritarren parte hartzea funtsezkoa da gizarte-proiektu honi buruzko erabaki kolektiboak hartzeko.

### **3. Lan sektoreen eraldaketa**

#### Sektore desiragarriak eta baztertu beharrekoak

Zer den desiragarria eta zer den baztertu beharrekoa zehazteko irizpide ekologiko eta etikoak erabili behar dira.

-Irizpide ekologikoak:

- Energia eta materia neurrigabe erabiltzen duten sektoreak murriztu edo eraldatu egin beharko dira.
- Automobilgintza, aeronautika, energia ez berriztagarria, nekazaritza intentsiboa, masa-turismoa edota eraikuntza.
- Eraldatzeak esan nahi du, sektore produktibo guztiek erabiltzen duten energia eta materiala murriztu behar dela, planetaren mugen arabera izatera iritsi arte.

#### Sektore desiragarriak edota etorkizuneko lanak

- Eraldaketa honen helburua izango da sektore iraunkorren aldeko apustu ekonomiko eta politikoari esker enplegua sortzea.
- Beharrezkoa izango da energia eta lehengai kontsumoan oso intentsiboak diren sektoreetatik hain intentsiboak ez diren sektoreetara enplegua lekualdatzea. Honek

aldaketak ekarriko ditu lan eskaintza eta eskarian.

Eraldatze ekologiko eta sozialarekin enplegu desiragarria sortzen da hainbat sektoretan:

*- Zaintzaren eta bizimodu onaren ekonomia*

-Pertsonen eta hauen oinarrizko beharren zaintzari loturiko jarduerak,

-Parte hartzea eta elkartasuna mantendu eta sustatzekoak jarduerak,

-Eskubide unibertsalak gauzatzea ahalbidetzen duten jarduerak.

*- Zerbitzu publikoak*

-Garraio publikoa, ikerketa, heziketa, osasuna...

-Sektore honek balio erantsi handia du pertsonentzat, gizartearentzat eta ingurumenarentzat

*- Merkataritza-jarduera*

-Merkataritza-jardueren gaineko kontrola berreskuratu, mugak ezarri eta berdintasun eta iraunkortasun arauak finkatu.

-Finantza-merkatuak arautu, orientabide ekologiko, etiko eta sozialak ezarri eta jarduera espekulatiboek eragindako finantza-transakzioei zerga jarri.

-Ingurumenari buruzko araudi bat eta fiskalitate ekologikoa behar ditu. (ekotasak ezarri, eta sektore kutsatzaileentzako dirulaguntzak kendu)

*-Ekonomia sozial eta solidarioa (ESS)*

-ESSaren oinarriak dira: berdintasuna, enplegua, ingurumenaren errespetua, lankidetzeta eta irabazteko asmorik eza, inguru sozialarekiko konpromisoa, parte hartzea eta barne- demokrazia.

-Enpresa kapitalistaren alternatiba da, kudeaketa aldetik eta helburu eraldatzaileak dituelako.

-Jarduera eta lanpostuak sortzeko bide garrantzitsua. Modu partehartzaile eta iraunkorrean

*- Ikerketa eta garapeneko jarduerak.*

*-Enplegu berdeak (ELArentzat eraldaketaren zutabea)*

Iraunkorrak ez diren enplegu galerari gaur egun oraindik garatu gabe dauden sektore iraunkorretan sortuko diren enpleguek erantzun behar die: enplegu berdeek.



#### **4. Baina, ¿zer dira enplegu BERDEAK?**

- Gakoa dira egungo ekoizpen ereduak modu ordenatu eta progresiboan aldatu, eta planetaren mugak errespetatzen dituen eredu egokia lortzeko.

-Enplegu hauen sorrera langabezia eta eskusio sozial eta ekonomikoaren aurka egiteko modurik eraginkorrena dira.

DEF: Ingurumenaren aurkako kanpo-eraginak zuzentzeko eta baliabide naturalen leheneratze-gaitasuna bermatzeko jarduerak guztiak dira. Energia eskasiaren eta klima aldaketaren menpe dagoen mundu batera egokitzeko behar diren jarduerak guztiak hartzen ditu bere baita:

- Ingurumenean eragiten ditugun kalteak zuzentzea edo gutxitzea helburu dutenak eta beste sektore ekonomiko guztiekiko zeharkakoak diren jarduerak: hondakinen kudeaketa, uren arazketa edo lurzoruen leheneratzea.

- Ondasunak eta zerbitzuak ingurumena zainduz ekoizten/eskaintzen dituztenak: nekazaritza ekologikoa, turismo ekologikoa, energia berriztagarriak, basozaintza jasangarria edo parke naturalen kudeaketa.

- Prebentzioa edo kontrola helburu duten zerbitzuak: kutsaduraren prebentzioan eta minimizazioan, ekodiseinuan, eta ingurumen hezkuntzan, sentsibilizazioan jarduten direnak edo ingurumen erantzukizunak dituzten administrazioeko sailek betetzen dituztenak.

- Produktu eta prozesuen ingurumen-modernizazioan ari diren ohiko sektoreetako enpresak, produkzio-sistemaren ekoefizientzia sustatzen duten ikerketa eta garapen jarduerak.

- Pertsonen bizitza kalitatea bermatzen eta hobetzen duten zerbitzu publikoak: osasuna, hezkuntza, gizarte zerbitzuak, garraio publikoa,...

## **5. Trantsiziorako eta enplegu berdeak sortzeko baldintzak**

Trantsizioa posible egiteko baldintza nagusienetakoa ekoizpena, kontsumoa eta lanaren inguruan ditugun ideiak aldatzean datza. Etorkizunerako nahi dugun proiektu soziala birpentsatu eta demokratikoki erabaki behar dugu, zeintzuk diren behar kolektiboak eta kontsumorakoak, eta non inbertitu nahi dugun gure lana. Proiektu hau errealista eta planetaren mugak errespetatzen dituen izan behar da beti ere. Eta baldintza batzuk bete beharko dira errealitate bihurtzeko:

- **Planifikazio parte-hartzaitik** proposatu behar da, bai administrazio mailan, eta baita enpresa mailan ere. Aldaketek tentsio eta gatazkak eragingo dituzte, horregatik inplikaturako eragile GUZTIEN arteko elkarlana beharrezkoa da (mugimendu sozialak, kontsumitzaileak, sindikatuak, enpresak,...).
- **Politika publikoen bitartez** marko juridiko egokia ezarri behar da. Ezinbestekoa izango da berregituratze prozesuaren finantzaketarako baliabide publikoak bideratzea, sektore estrategikoen garapenaren alde apustu eginez enplegu berdeak sortzeko.
- **Babes soziala**, iraunkorrak ez diren sektoreetako langabetuei laguntzak, sektore iraunkorretarantz bideratzeko lanaren birmoldaketa, formazio planak eta ikasketa etengabea bermatu behar dira.
- **Genero ikuspuntutik**, neurri espezifikoak beharrezkoak izango dira enplegu berdeetan eta kalitatezkoetan dagoen emakume langileen portzentajea handiagoa izan dadin.
- **Fiskaltasunaren erreforma**: iruzur fiskalaren aurkako borroka tinkoa, sozietateen gaineko zerga eta errenta altu eta kapitalen gaineko zergak igotzea. Kapital publiko eta pribatuaren mobilizazioa beharrezkoak izango dira bide honi ekiteko.

## **6. Hego Euskal Herrirako aurreikuspenak.**

2010eko datuen arabera, EAEn eta Nafarroan, hurrenez hurren, 24.000 eta 9.000 enplegu berde zeuden, 33.000 guztira.

Etorkizunera begira, Ekonomiaren trantsizio ekologiko eta sozialari esker, 90.000 lanpostu berdetik gora sor daitezke EAEn, eta Nafarroan 12.000 enplegu berdetik gora. *Iparraldeko kalkuluek diote 10.000 enplegu berde sor daitezkeela.*

*Enplegu berdeen sorrera sektoreka Hego Euskal Herrian: 106.000 enplegu berde.*

Badira sektore estrategikoak non enplegu berdeen sorrera jada errealitatean den. EAEn nahiz Nafarroan enplegu sorrerarako benetako aukera dira:

**Eraikinen birgaitze lanak:** 41.500 enplegu (zuzenekoak eta zeharkakoak)

**Energia-sektorea:** Energia horniduraren egitura aldatuz eta energia berriztagarrien erabilera %100era iritsiz, EAE 20.000 eta Nafarroan 6.300 enplegu.

**Mugikortasuna:** Pertsona zein merkantziak garraiatzeko modua aldatuz, mugikortasun iraunkorrerako planekin eta garraio publiko sarea lurralde osora zabalduz. 2500 enplegu.

**Hondakinak:** Hondakinen kudeaketa eredu iraunkor bat ezarriz. **7.900 enplegu.**

**Agroekologia, arrantza eta basozaintza iraunkorrak:** Egungo sektore ez-iraunkorra eraldatuz, ekoizpen ekologikorako azalera gehituz eta ekoizpena elikadura burujabetzara zuzenduz. 25.000 enplegu.

**Uraren kultura berri bat:** Ura aurrezteko eta zentzuz erabiltzeko politikekin. 1000 enplegu.

**Industria:** Iraunkortasunerantz bidera daiteke euskal ekoizpen eredu industrialak ekodiseinua, bizi-zikloaren azterketa eta produktuen iraupen luzeagoan oinarrituz. Baita birziklatze lanetan, altzairu-sektorean eta ekipo eraginkorragoen fabrikazioan ere. 2.200

**Beste neurri batzuk:**

- Hirietako saltoki handien eta hipermerkatuen ordez tokian tokiko merkataritza



sustatzeak.

- Herritarren premiak asetzeko kalitatezko zerbitzu publikoak. (10.000 lanpostu).
- Lanaldia murriztuz enplegua banatzeak (35 orduko lanaldiak). 15.000 lanpostu.

Datu hauek argi uzten dute badugula non eragin egoerari buelta emateko. Baina guzti hau gure instituzioetan daudenen aldeko apustutik gabe zailagoa da. Baina borondate politikoa behar da, pertsonak erdigunean jartzeko.